

28a

LANEKO SEGURTASUNAREN ETA

APIRILARE

OSASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

LAN PREKARIETATEAK



LANGILEAK ERAHILTZEN DITU

Apirilak 28

Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Eguna

Zer-nolako lan osasunaz ari gara egungo garai sozial prekario eta eskas hauetan?

Espainiako estatuko **lan-harremanen eredia** neoliberalismoak jota eta oinarrizko eskubideak galtzeko zorian dago. 77ko gizarte-itun handiaren ostean (Moncloako itunak, hain zuzen), lan karga eta kapitalaren arteko orekan oinarrituriko industria- eta lan-harremanak leher egiten ikusi ditugu. Hala, **gizarte-eredua** (soldatan oinarritutako edozein harreman, erlazio soziala baita), **prekarietatean**, **segurtasunik-ezan**, eta bizitza duin baten eredian kokatu dute.

PSOEren erreformak, 84/85ekoak, kontratu egonkor eta finkoarekin amaitu zuen, lan-zuzenbidearen barruan zegoen kontratu mota bakar gisa bezala. Behin-behineko 14 lan-kontratu eredu inguru sortu ziren. Hala, horrek soldata jasotzen duenaren eta bere lanpostuaren arteko harreman egonkorraren amaiera ekarri zuen.

PSOEren 94ko erreformak, lan-baldintzak liberalizatu zituen lanaldia, ordutegia, ordainsari-erregimena eta txandei zegokienez, besteak beste... Adibidez, Enplegu-Erregulazioko Espedientea (EEE). Prozedura horren ondorioz, **enpresariei botere osoa eman zieten lan-baldintzak haien kabuz aldatu ahal izateko**. Administrazioa (Estatua) behatzaile hutsa baino ez da EEEetan. Gainera, malgutasunaren kontzeptua sartu zen lanpostuak eta lan-baldintzak berrantolatze sistema gisa.

Alde horretatik, 90eko hamarkadatik aurrerako erreformek hainbeste liberalizatzen dute lan-merkatua non lanpostuak eta lan-

baldintzak antolatzeko sistemek ardatz baten inguruan jokatzeko duten: deszentralizazio produktiboa. Izan ere, batetik, kontrata zein azpi-kontratek eredu prekario, insegurua eta ahula sustatzen dute; eta, bestetik, **kapitalaren askatasuna bizitzaren oinarri izatera igarotzen da.**

Zerbitzu, energia, telekomunikazio, garraiobide, finantza, baina baita lan desregulazioa eta, merkatu pribatuari egindako zerbitzu publikoen entregaren liberalizazioa adibide ohikoa izan da XX. mendeko amaieran. XXI. mende honetako 17 urteotan ere igualtsu jarraitzen dugu. Izan ere, Europar Batasunak ezartzen ditu politika ekonomiko, fiskal eta sozialen arauak.



2011 urtea mugarria izan da Espainiako estatuarentzat; egoera horretara ailegatu gara zuzenbide eta gizarte estatuak hiltzeko zorian utzi duen kolpea jaso ostean, **135 artikulua**ren erreformarekin batera. Izan ere, delako erreformak **gizartea txirotu, prekarizatu eta areagotu egin du nabarmen. Bidegabekeria sozialaren erregimena ezarri da.**

Araudiaren aldaketak, lan-erreformak, burdinezko eskuz egindako legalitatearen erakusgarri baino ez dira eta **malgutasunak orain dela 33 urte baino gehiagoren inspirazioa izan dira.**

Neoliberalismoak jotako lan-harremanetarako esparru baten aurrean gaude: langileentzat insegurua eta, aldi berean, gatazkaren ezaugarri kolektiboaren zantzuak urtu dituen, lan-harremanak indibidualizatuz eta ordainetan oinarritutako harremanen izate sozial eta kolektiboa deseginez.

Lan-baldintzen homogeneizazioraino ailegatu gara, betiere, malgutasunaren irizpidearen ondorioz. Bestetik, enpresarioak aktibitate-esparru guztietan aurrera eramandako berregituraketa basatia ahalbidetu du, erakundeen muga zehatzik gabe eta sindikalgintzaren erantzun barik.

Ahultasuna edota inseguritatea iraganaren eta orainaldiaren arteko haustura bezala agertzen dira, baita norbanakoaren eta kolektiboaren artekoa ere. Emantzipazio ezintasun gisa ikusten dugu, batez ere, gazte eta emakumeen artekoa. Halaber, gero eta laguntza instituzional gutxiago dago, osasunaren egiturazko okerreratzea ekarri duena; lan-katean ez ezik, pertsonon bizimoduan ere.

Gaixotasuna ekarri duen eredu horrek, bitarteko autoritario eta disziplinarioak erabili izan ditu: legeak, lanaren antolaketa, epaiak... arrisku oro langileen teilatura ekarri, eta aldi berean, pertsona horrek bere lanpostuan baja hartzen duenean, kaleratu dezakete, besterik gabe.

Neoliberalismoak jotako ereduaren aurrean, langileon ahalduntzeak ekarri ahalko du lana eta gizartea osasuntsu egotea, eta ez beste ezerk.

